

Ariketa:

Alokairu eta lanorduen arteko erlazioa aztertzeko, alokairua (W), lanorduak (H) eta generoa (S) aldagaien zortzi banakoen gurutzatutako datuak ditugu. S fikzio-aldagai bat da zeinek 1 balioa hartzen duen banakoa emakumezkoa bada eta 0 balioa gizonezkoa bada.

Kontsidera ezazu ondorengo eredua:

$$W_i = \beta_1 + \beta_2 H_i + u_i \quad (1)$$

1. Editatu Gretlen fitxategi bat ariketan erabiliko dituzun ondorengo datuekin:

W	H	S
170	40	0
180	50	0
165	30	0
165	40	0
105	50	1
95	35	1
100	40	1
90	35	1

2. Idatzi eta komentatu (1) ereduko estimazioaren emaitzak. Esperotakoak dira?
3. Kontrasta ezazu ereduko aldagai azaltzaileen banakako esanguratasuna. Idatz itzazu perturbazioaren beharrezko hipotesiak estatistikoak baliagarriak izateko.
4. Kontrasta ezazu aldagai azaltzaileen baterako esanguratasuna.
5. Interpreta ezazu ereduaren mugatze koefizientea.
6. Irudikatu hondarren grafikoa. Lehenengo lau behaketak gizonezkoak eta hurrengo lauak emakumezkoak direla kontuan hartuz, komenta ezazu grafikoa.
7. Burutu ezazu Engle-n kontrastea (1) ereduan pertsonen generoa neurtzen duen fikzio-aldagaia (S) barneratzeak merezi duen jakiteko. Komenta ezazu kontrastearen emaitza.
8. Kontrastearen emaitza eta hondarren grafikoa ikusita, nola aldatuko zenuke (1) ereduaren zehazpena? Estima ezazu S fikzio-aldagaia barneratzen duen eredua eta komenta itzazu emaitzak. Konpara itzazu bi ereduen estimazioen emaitzak.
9. (1) eredua estimatzen baduzu baina eredu zuzenak lanorduez gain generoa barneratzen badu, zein da lanorduek soldatarengan duten efektuaren alborapena? Alborapenaren zeinua positiboa ala negatiboa izatea espero duzu?